



PACHI TA KONCHESI.

LEYENDA SEÑALADA CON MENCION HONORÍFICA EN LOS JUEGOS FLORALES
DE SAN SEBASTIAN DE 1883.

(GIPUZKOA-RI)

¡Probinzi maitea!.....
«Lengo zure semeen
oiturretan daude gordeak
zure onra ta gure zo-
riona.»

(AZKENA.)

IV.

Biaramon goizean joan ziran echera, eta denbora guchi barru ezkondu ziren Eliza. Ama Santak agintzen duen bezela, ez gaurko egunean batzuek nai luteken eraras. Ezta izandu, ezta ta ezta izango ezkontza egiazko edo matrimoniorik sakramenturik gabe. Kontu egi oni datozen denboretan, zergatikan dan gure zorionaren sus-traia.

Bizi izan ziran bitartean beren echea izandu zan birtutearen elizacho bat; ¿nola bestela zorionik izan?

Beren elkarganonzko amorioa, zeukaten Jaunaren eskuetan jarria; beren biotzak ¡goian! ¡goian! guretzat egintako Zeru eder ortan, eta ez, iretsi bear gaituen lur triste onetan eta bere gauza ilko-retan.

Onegatik, esan liteke bizi zirala beti orazioari; jan, edan, lo, lane-gin, eta bizi ontako poz eta penak, guzia Jaunaren izenean pasaturik. ¡A!.... au da egiazko orazioa; gure animak, Jauna gandik ate-

ratzendanetik Jaunagana dijoaneraño, izan bear du Zeruko amorioan irazekitako kandela bat, onen garra orazioa dala.

Jaunak eman zizkaten aurrak; iru alaba ta bi seme; baña bi, neñ-ka-mutillak, seaskatik Zerura egan joanik, gelditu ziran irurekin. ¡Zēñen egia dan esangi zarrak diona: *zer ikusi ura ikasi*; aitak eta amak beren gurasoetatik ikasia erakusten zioten beren aurchoari.

Amak, bularrean zeuzkazkiela, erakusten zien ¡Jesus! eta ¡Maria! esaten, eta koskortu ezkeroztik aitak etzien ematen talo pusdik izen maitagarri oetako bat aurretik esaten ezpazuten. Gero, ala amak nola aitak erakusten zien ziñatzen; gero, Aita-Gurea eta beste orazioak, eta gosaltzen edo bazkaltzen ari zirala etortzen bazan ateetara pobre edo eskale bat, barrena sartzeko eta alkicho batean esertzeko esanik, bialdzenzioten al zutena aurchoetako batekin. Arratsean, aita ta amak errosarion esaten egiten zuten murmur santuarekin gelditzen ziran lo-locho aingeruchoak, bi zarrenak seaskan, eta chikiena, mundu ontan dan seaskik gozoenean: ¡amaren magalchoan!

Azitzen, zetozen bezela, gaubero, gaubero, bere biotzak birtuteaz chertatuak betiko geldi zitezen, oeratu baño len kontatzen zizkaten kontu politak; ejemplo onak beren begien aurrean jarririk. Gero, erakusten zien Dotriña, eramaten zituzten berekin elizara, zelaiera lanegitera, eta orla azi ziran zuzen Jaunaren Legean, beren eta gurasoen onerako.

Eta oek ¿nola bizi ziran?

Etzan entzuten sekulan beren artean aserrezko itz erdi bat; jai egunetan joaten ziran, al zuten guztian, meza-nagusi ta bezperetara; urtean, jai egunetaz kanpora, meza entzun, konfesatu ta komulgatu askotan egiten zuten, zergatik Jaunaganonzko amorio biziz beterik dagon biotza kontentatzen eztan Eliz Ama Santaren legeak soill-soillik kunplitzearekin. Naidu egin, amorioz, zerbait geiago bere maitegatik, eta, al balu, egongo litzake ¡beti! berarekin, Aldareko Sakramentu Santuaren aurrean.

Maiz joaten ziran Aranzazura bere aurchoakin.

Echeke errenta nagusiari zuzen pagaturik, eta amarrenak Elizari emakin, gelditzen zitzaioletetik berezitzen zuten parte bat, andre alargun, umezurtz, zar, eri, eta doakabetuentzat, zeinen lurrak laiatu eta aitzurtzera joaten ziran gañera, al bazuten. ¡Tristea, beretzat bakarrik bizi dan kristaua!

Ejemplo oek ikusirik azi ziran beren umeak; eta semea, gaztetan ezkondurik, Pachi ta Koncheši jostatzen ziran illobachoakin.

Bazijoazen urteak, eta 79 garrenean, Pachi arrapatu zuen miñak. Gaizki senti zan egun batean, esan zion Koncheširi:

—Badakizu mundu ontarako egiñak ez gerala, eta bera uzteko ordua alderatzen ari zait.—

Konchešik eman zion negarrari.

Pachik esan zion:

—Utzi ditzatzu negarrak, Koncheši; urte asko baño len, gaur emen gauden baño obeto Zeruan elkarrekin egotea esperodet Aranzazuko gure Ama maitearen bidez. Eta orain, Ama onenzat; enkargu bat ematera noakizu: nainuke; iltzen naizanean, zuk, gure seme ta illoba guztiakin bisitacho bat Aranzazuko Amari egitea; elkarrekin pasagenituen bideetatik joan ta etorririk, an meza bat entzun ta errosario bat esanaz; eta aritz arren peko gure gertaera guztia ondo esanik, Oñatin, aitaren obi ondoan erregutzea beraren eta nere animak-gatik.—

Konchesik begiratu zion, esanaz:

—¡Pachi!... Oraindik zurekin egingodet berriz erromeri ura, sendatzen zeranean; ala naiko du gure Ama Birjiñak: egin zaiogun promesa bat.

— Egiña dago —eranzun zion Pachik—eta atsegín aundi bat izan-genuke gure Ama azkeneko aldiz ikusi ondorean, zure aitak bezela, aritz arren azpian nere azken arnasa berari ematen, nere famili guztiaz ingurutua. Baña bere eskuetan jarzagun nere sendatze edo illtzea, eta izan bedi berak nai duena.—

Biak gelditu gelditu ziran isillik eta andik laster, esan zuen Pachik:

—¡Ai Koncheši!... gaizki senti naiz. Datorrela abade jauna. Ez denborik galdu.—

Konchešik deitu zuen semea, esan zion, al zuen bezela, aita nola zegoen, eta ekarzezala, bereala, abade jauna.

Abendua zan, gauerdia, eta elurra ari zuen: joan zan, eta apaiza jauna, larogei urtekoa, miñtsu zegoelarik, abiatu zen bertatik naiz bide erdian gelditu. ¡A!... buruko illeak lurreko elurra bezain zuriak zeuzkalarik, etzuen batere otzik sentitzen; Eguzkiaren Eguzkiak, Jesusen amorioak, berotzen zion biotza!

Pachik egin zituen bere gauzak ondo; ¡etzitzaion orduan damutzen bere bizi guztian Ama Birjiña maite izandua! Eriotzeko orduan Ama onek erregutzen zuen bere semeagatik, ordu garratz hura gozaturik, ikusi zitekean bezela zeukan sosegu ederrari begiratzearekin; eta, urrengo goizean, Konchesi eta seme-illobachoaz ingurutua zegoela, gizon justu arren anima, agoni labur baten ondoren, igo zan Zeruetara Jaunari bere kontuak ematera. Etzuen izandu modurik azkeneko orduetan itz batzuek bere familiari esateko konseju onak emanaz, baña ¿zér itz oberik bere bizi guztian eman zion ejenplo ona baño?

Konchesik berak janzi nai izandu zuen gorputz ill ura, bere seme-alaben laguntzarekin; eta ikusi zuenean Pachiren kolkooan, beti berekin eraman izan zuen eskapulario ura, bere amorioa agertu zion egunean erakutsi ziona, kentzera abiatu zan bere buruan zinzillik jarri nairik, baña ezin zion kendu. Orduan oroitu zitzaion Pachik esan ziola obira ere berekin batean eraman naikozuela, eta miñ eman ta bertan utzirik, ikusi zuen alde guztietatik argi-errañu dizdizariak botatzen zituela, eta Ama Birjiña erdian, far gosotsu bal egiñaz zegoela.

Ikuskera onekin gelditu zan non zegoen etzekiela; baña, konturaturik, bukatu zuen bere lan gogorra, ur bedekituz eta malkoz busti zuen gorputz ura, *Pater noster* bat esan zuen, eta eskapulario arri berriz ere muñ emanik eta emanerazorik bere seme-illoba guztiai, aterazan gel' artatik bere senarra geiago ez ikusteko lur triste onen gañean.

Andik egun batzuetara, seme-illobak al egiñean konsolatzen zutelarik, asi zan gaiŕotzen, eta, zer gerta ere, nai izandu zuen bere Pachik emantako enkargua lenbailen kunplitu.

Ala, bada, indar piŕka batzuekin senti zan, urrengo Ilbeltzaren gau batean, bildu zuen famili guzia beti bezela errosario santua esateko, eta, ondoren, agertu zien egin bear zutena. Guztiak entzun zituzten bere itzak Zerutik aitak esanak bezela, eta gelditu ziran lenbiziko egualdi onean irtentzeko, echearen kontua auzokoai utzirik.

Iru garren egunean atera ziran; eta Oñatira allegatzeakin batean gogoratu zitzaion amari, bere aitarekin, Pachi arkitu zutenean, egintako erromeri ura; orduan, bazter guztiak jendez eta pozez betiak; gaur, bakardade ta isilltasunean, kanpo-santu bat egiñik! Baña, penak gozatzen zizkan ikusteak, bere famili berri artan, aitaren eta Pachiren itzal maiteak!

Ikusgarria zan Aranzazun izandu zuten debozioa, eta nola entzun zuten seme-illobak, amak kontatu zien gertaera. ¡Alako moduz kontatu zuen izan ere!...

Gero, Oñatira jachi eta ezur maite aen ondoan erreguturik, biurtu ziran echera. Onetan sartu orduko oeratu zan ama tristea geiago ez jaikitzeke; kontentu zan bere defuntu maitearen esana kunplitu zuelako, eta zion onek deitzen ziola Zerutik.

Izango zan zerbait: zergatik, gaiŕotzen-gaiŕotzen joanik, bere seme-alaben besoetan iltzan, goxoro, Ilbeltzaren 29-an, Done Fransisko Sales-koaren egunean, zeña zan Pachiren eguna.

¡Euskaldúnak!

¿Zér esaten digu ikusi degun irakurgaiak?

Esaten digu jarri bear degula Zeru ta lurren Erregiñaren eskue-
tan gure suertea, anbat esperanza geiagorekin zenbat eta garratza-
goak diran iragotzen ditugun doakaheak. ¡Bai!... Au egiten duen
erria, ezta beñere galduko.

Gañera agertzen dizkigu gure guraso Euskaldun zarrak zituzten
oitura betiko onak, eta diot *betiko*, zergatik gizonak sekulan utzi
ezlezaken, bere burua galdu gabe, Jaunak bere onerako eman zion
Legea, eta Euskal-oiturak diran Lege illezkor ontatik, azitik izana
bezela, zuzen-zuzen datozenak.

¿Zeruko ondasunak nai ditugu? Izan ditzagun, bada, oitura onak.

¿Lurreko ondasunak nai ditugu? Izan ditzagun, ala berean, oitu-
ra onak.

Ezta zorionik ezpada oitura onik.

Pachi ta Koncheši, ikusi dan bezela, nekazariak ziran; baña ba-
serrian bezela kalean, eta nekazariak bezela beste edozeiñek, izan
litzake oitura onak. ¡Bai! Oek balio dute gure oraingo eta geroko
zoriontasuna, eta dira gaiztoak baño askoz errazago izan genitzake-
nak. Dira egiazko Fueroak, iñork kenduko eztizkigunak, geok gal-
dzen ezpadiugu geon buruak galdurik.

Oitura onak galdu ezkeru ¿zertako dira paperean jarri litezken
legerik onenak?

Eta ¿zérk gordeko dizkigu oitura oek? ¡A!... Oen kucha miraga-
rria da Ama Euskera, zeñaren barruan arkitzen eztan itz arneguz-
ko edo blasfemiaskorik; eta gure aboak, sugeak pozoia bezela, blas-
femiasko itza bota bear badu, aztu dezagun bertatik gure izkuntza
betiko; eztezagula Ama iltzera ekarri ta gero, bere eriotzean mez-
prezatu ¡ai!... pozoi ikaragarri orrekin zikindu ta lotsaturik! Ill bear
badu ill bedi mancharik gabe. Baña ¡éz! ezta illko, ezta illko. Erri
batzuetatik Euskal-oiturak galdzen badira negarrez erretiratukoda;
baña ¡beti! ¡beti! artitukoda Aloña eta beste gure mendi maiteen
kolkoetan Jaungoikoa eta Maria alabatzen.

¡Euskaldúnak: Geon buruak maite ezpadiugu, ¡maite ditzagun
beintzat Euskaldun chiki gure semecho eta alabachoenak! ¿Zér etor-
kizun dagokiote oei oitura onetan azitzen ezpadiugu?...

¡Pensatze utsak puskatzendit biotza!

ANTONIO ARZÁC ETA ALBERDI.

